

{ Txillardegiri buruzko bi gogoeta } **Pruden GARTZIA** Euskaltzain urgazlea

Zer dugun Txillardegiren alde (I)

Txillardegia da XX. mendeko euskal intelektual garrantzitsuena, horra artikululu honetan aurkeztu nahi dudana tesia. Eta soberan dakit gure tradizio kulturalean ez dela batere dotorea pertsona bat, bat bakarrik, beste guztien gainetik horrela nabarmentzea, baina kasu honetan, honetan bereziki, beharrezkoa da mezua argi eta garbi paratzea: Txillardegia ez dago bakarrik, dozenaka izen jarri daitezke haren aldamenean, eta guztiek meritu handiak dituzte aipatuak izateko, baina hura beste guztiak baino garrantzitsuagoa da Euskal Herriaren historian.

Zergatik? Horra azpiko lerroetan azaldu nahi nukeena.

INTELEKTUALAK

Herri eta nazio guzti-guztien historian agertzen dira intelektualak; ez da erraza hori zehazki zer den definitzea, baina zer ez diren esanda agian asko hurbilduko gara: intelektualak ez dira politikariak, kulturaren alorrean ari dira funtsean, liburuak eta artikulak idazten dituzte, eta, sarritan politikan esku hartzeko joera handia izaten badute ere, oso gutxitan dira politikari profesionalak; aitzitik, politikariei egindako kritikak izaten dira, sarri, haien testurik eza-gunenak, eta herritar xeheek ez dituzte

politikari bezala identifikatzen, idazle bezala baizik, aldian-aldian politikan esku hartzen duten idazleak, zuzen edo zeharka, gehiago edo gutxiago, normalki ekarpen positiboak kritika latzekin tartekatuz. Herritar arruntarentzat intelektualak nazioaren ezaugarri eta nondik norako nagusiak definitzen dituzten idazleak dira, betiere kulturaren alorrean jardunez eta, tarteka, politikan ere esku hartuz. Tarteka.

Europar nazio bakoitzak dauka bere tradizio intelektual propioa, bere estiloa, nolabait esanda. Horrela, Frantzian, adibidez, intelektualak bereziki iskanbilatuak izan ohi dira, bereziki emanak politikan danborra jotzera; Ingalaterran,



Zer dugun Txillardegiren kontra (II)



Aurreko artikuluan Txillardegiren alde esan daitekeenaz jardun naiz. Honetan, ordea, Txillardegiren kontra mintzatu naiz, Joxe Azurmendik behiala gure artean, Orixeri buruz idatziz, finkatu zuen eredu eza-gunari segituz. Ez aurretik argi eta garbi azaldu barik, Azurmendik berak sarri azpimarratu duen bezala, bera Orixeren miresle osoa zela eta dela; hura kritikatzeko, beraz, erretorikoki baino ez da haren kontra jardutea, haren hutsuneak eta mugak nabarmentzea da berez, betiere miresmenetik abiatuta. Bada, ni ere berdin.

Eta aurrekoan bezala hasieratik tesi argi bat sostengatuz abiatuko naiz, hau

da: Txillardegiren pentsamendua guztiz lotuta dago bere garaiko egoera politiko-sozialari, hots, gaur egun ez dauka orduko indarririk eta, areago, bide beretik segitu nahi izatea errakuntza bat litzateke. Alegia, Txillardegik arrazoi osoa zuen orduan, gaur egun askoz ere gutxiago. Hurrengo lerroetan saiatuko naiz argitzen zergatik.

TXILLARDEGI INOIZ EZ ZEN IZAN JAKITUNENA

Gaiari tamaina hartzeko, komeni da batzuentzat mingarria izan daitekeen egiaztapen batetik abiatzea: Txillardegia inoiz ez zen izan espezialista nagusia ezertan; alderantziz, mila eta bat alorretan aritu zen (euskal kulturaren orduko egoerak hala behartuta) eta, guztietan goi-mailakoa izan bazen

ere, ezertan ez zen izan, inoiz, espezialista nagusia.

Alegia, euskararen eta euskal herri-kulturaren ezagutzaile aparta izan zen, baina alor horretan inoiz ez zen hurbildu Azkue baten edo Barandiaran baten mailara. Hizkuntzalaria izan zen, oso ona, euskara batuaren formulatzaile nagusia (hori egia historikoa besterik ez da), baina berak beti oso argi izan zuen, eta sarritan publikoki errepikatu, Mitxelena zela benetako jakituna alor horretan. Filosofiaz eta soziologiaz idatzi zuen, eta bera izan zen mota horretako gauzez modernitatearen ikuspuntutik euskaraz idazten hasi zen lehena, baina Joxe Azurmendi baten ezagutza ez zuen inoiz berdindu, bistan dago edonorentzat. Sakon aztertu zuen gure

ordea, gaizki ikusia dago burrunbaka ibiltzea eta, politikan nabarmentzen direnak falta ez badira ere, gutxiengoa izan ohi dira, eta bide hori hautatzen dutenek ere pianistaren manerak hobetsi ohi dituzte. Bi tradizio horien desberdintasunez jabetzeko, aski da Jean-Paul Sartre (1905-1980) Bertrand Rusellekin (1872-1970) konparatzea. Espainia kulturalki frantseszalea izan da azken mendeotan, baina moderatuagoa: aski da Jose Ortega y Gasseten (1883-1955) tronpeta-solo etengabeak Ramon Menendez Pidalen (1869-1968) noizbehinkako prentsa-artikulu moderatu eta neurtuekin erkatzea: unibertsitateko ikasgela eta mintegietan bake-bakean aritzea izaten zen haren asmo nagusia, gutxitan apurtua.

Euskal Herrian, oro har, modelo frantsesari segitu ohi diogu, gertutasunagatik eta kultura frantsesaren itzal handiagatik ziur aski, baina baita ere gure azken mendeotako historiak ia-ia ezin-

bestekoa bihurtu zuelako intelektualek beren buruak politikoki definitzea, etengabe definitzea. Zeren hiltzen ari den herri batean kultura aritza politikaz ezer jakin nahi gabe Ingalaterran edo Alemanian erraza eta ongi ikusia da, baina gurean ia ezinezkoa dugu.

Intelektualen azken ezaugarri nagusia beren ingurugiroari dagokio: inoiz ez dabilta bakarrik, beti, ia-ia definitzior, giro kultural sendo bat behar dute sortu eta garatzeko, elkarren arteko komunikazioa da intelektualak sortzeko aurrebaldintza ezinbestekoa. Soilik elkar laudatuz, sendotuz edo kritikatzuz lortzen du idazle batek bere burua nabarmentzea, aitortua izatea. Eta horrela, baratzean porruak, letxugak, toma-teak eta piperrak ditugun bezala, sailka landatuak, kulturaren ortuan ezkerreko eta eskuineko jendea agertzen zaigu, progresistak eta kontserbadoreak, danborra-joleak eta unibertsitateko giro ba-

«*Hauek dira, nire uste apalean, Euskal Herriko intelektual garrantzitsuenak XX. mendean: Arturo Campion, Resurreccion Maria Azkue, Miguel Unamuno, Pio Baroja, Lizardi, Jose Migel Barandiaran, Piarres Lafitte, Koldo Mitxelena, Txillardegia, Joxe Azurmendi eta Bernardo Atxaga. Eta horietatik nor da gure Pele? Nik ez daukat dudarik: Txillardegia*»

rea maite dutenak, koruan abesten dutenak eta tenoreak, eta azken horiek ezagunenak izaten badira ere, ahots baxuak dira, sarri, doinuaren gidaritza daramatenak, hemen eta edonon.

EUSKAL HERRIKO INTELEKTUALAK

Irakurle bipila honezkero jabetua dago intelektualak beti sailka agertzen badira ere, normalean gutxi-gutxi batzuk izaten direla beste guztien gainetik nabarmentzen direnak. Aipatu ditugu izen batzuk gorago, inork pentsatzen ote du horiek baino ez zirela dedikatzen idaztera beren garaian eta nazioan? Ez zituztela aldamenean dozenaka eta dozenaka lagun, adiskide, lehiakide, etsai edo dena-delako, antzeko alorrean aitzurrean zebiltzanak? Baina gutxi-gutxi batzuk baino ez dira aipatzen, usu. Bada, Euskal Herrian berdin da.

Hauek dira, nire uste apalean, Euskal Herriko intelektual garrantzitsuenak

herriaren historia, baina inoiz ez Campionen jarraitutasun eta xehetasune-kin. Literaturaz, zer esanik ez, bera da inork baino lehenago, inork baino argiago, modernitatea euskal literaturara ekarri zuena, inongo zalantzarik gabe, baina Baroja, Unamuno, Lizardi edo Atxaga baten aldean, bere liburuak beti bigarren mailakoak iruditzen zaizkigu. Bukatzeko, bizi zelarik autoritate itzela lortu zuen euskaldunen artean, baina batez ere ezker abertzaleko esparruan: inoiz ez Lafittek Iparraldean edo Mitxelenak Hegoaldean zeukaten autoritate zabalarekin.

Beraz, badirudi kontraesanetan nabilela: hura beste guztien aurretik eta gainetik zegoela idatzi nuen aurreko artikuluan, eta orain hasi naiz esaten, alorrez alor aztertuta, inoiz ez dela izan lehena. Nola ulertzen da hori?

Bada, modu erraz batean: ezertan ez zen onena, baina berak markatzen du, inork baino lehenago eta inork baino hobeto, euskal kulturak XX.

«*Egiatan, Txillardegik euskararen salbamenduaz egiten duen teorizazioan bi alor lotu zituen estuki: Soziolinguistika eta Politika. Hori da, nire ustez, haren pentsamenduaren muina, gako nagusia*»

mendean izan zuen bihurgune nagusia, erdaratik euskarara. Bai, ezertan ez zen onena, baina bera zen bidea erakutsi zuen benetako gidaria, eta erakutsi ez ezik, bere erabakimenez praktikan jartzea eta jarraitua izatea lortu zuena. Zeren, garai hartan, denek segitzen zioten, guztiek, hala aitortuta edo aitortu gabe, gustuz edo borondatearen kontra, baina hura zen jarraitu beharreko bidea markatzen zuena. Bera zen euskal kulturaren kapitain-pilotu, eta bere aurrekoek amestu bai, baina inoiz lortu ez zutena lortu zuen.

EUSKARA ETA POLITIKA LOTUZ

Alor bat badago, dena den, zeinetan agian bera izan zen autoritate nagusia, eta hori Soziolinguistika da (Hizkuntzalaritzarekin nahastu behar ez dena). Ez da kontu agerikoa, badirelako beste teorizazio batzuk ere, baina orain Txillardegirena aztertuko dugu, hura baita, nire ustez, XX. mendeko azken ha-

markadatako berreuskalduntzearen indar intelektual nagusia.

Egiatan, Txillardegik euskararen salbamenduaz egiten duen teorizazioan bi alor lotu zituen estuki: Soziolinguistika eta Politika. Hori da, nire ustez, haren pentsamenduaren muina, gako nagusia. Alegia, euskaltzalea izatea eta abertzalea izatea sinonimoak ziren berarentzat: ez dago euskaltzale izaterik abertzale izan gabe, eta ez dago abertzale izaterik euskaltzale izan gabe, esango nuke hori dela bere pentsamenduaren *ultima ratio*, azken funtsa. Eta euskaltzale izatea da orain eta hemen euskaraz jardutea, maila guztietan. Puntu horretan ez du inoiz amore emango.

Komenigarria izan daiteke azpimarraztea bi alor desberdin direla berez, ez dagoela zertan lotu bata bestearekin. Adibidez, Irlanda batean inoiz ez dituzte lotu eta, jakina, XX. mende hasierako lehen eusko abertzaleek ere ez zituzten lotzen. Bon, hori ez da guztiz



Txillardegia 2010eko urrian egindako erretratu batean. Jon URBE | FOKU

XX. mendean: Arturo Campion, Resurreccion Maria Azkue, Miguel Unamuno, Pio Baroja, Lizardi, Jose Migel Barandiaran, Piarres Lafitte, Koldo Mitxelena, Txillardegia, Joxe Azurmendi eta Bernardo Atxaga. Gehiago jarri daitezke? Bai horixe! Dozenaka gehiago! Baina futbol partida batean hamaikak baino jokatzeko ez duten bezala, nik neuk hamaika baino ez ditut hautatu hemen, hori da nire hautua.

Eta hamaika horietatik nor da gure Pele, gure Maradona? Nik ez daukat dudarik: Txillardegia. Esan dezadan zergatik.

EUSKAL KULTURAREN BIHURGUNE NAGUSIA

Kulturaren alorrean, Euskal Herriko XX. mendeko gertakari nagusia hau da: mende hasieran euskal kultura, gaur egun kulturatzat nagusiki ulertzen duguna, erdaraz gauzatzen zen ia-ia eskusiboki. Hain zuzen ere, mende berriarekin hasi ziren ameslari batzuk

«Txillardegiren logika: euskal herritarren gehiengo zabal bat antifrankista sentitzen zen ororen buru, bada, antifrankista izateko modu koherente bakarra da abertzale izatea, eta abertzale bazara euskaltzale izan behar duzu, eta euskaltzale bazara euskara ikasi eta hitz egin behar duzu»

euskaraz ere idazten kultura urbano modernoari zegozkion liburuak, prentsa-artikuluak, lan akademikoak, zarzuelak, operak... Champion eta Azkue izan ziren lehenak, bereziki Azkue, eta izan zuten segida nabarmena, bereziki Lizardi bat. Baina ez zuten lortu, ezta urrunetik ere, frantsesaren eta gaztelaniaren monopolioa apurtzea: ezaguna da, gainera, beren idazlan gehienak gaztelaniaz edo frantsesez egiteaz gain, belaunaldi horretakoek hitz egin ere beren artean nagusiki erdaraz hitz egiten zutela. Tristea da, baina hala da. Bitartean, euskal kultura zer zen definitzea Baroja eta Unamuno bezalako idazleen esku geratu zen *de facto*, hots, euskararen garapen kulturalaren guztiz kontrakoak zirenen eskuetan.

Etorri ziren Gerra Zibila eta II. Mundu Gerra, eta ondoko urteetan gauzak ez ziren funtsean aldatu: Barandiaranek, Lafittek, Mitxelena, nagusiki erdaraz

egin zituzten beren idazlanak. Egia da ziur aski orduan gertatu zela lehen aldaketa handia: beraien artean euskaraz hitz egiten hasi ziren, aurreko garaietan ez bezala, baina idatzi, batez ere gaztelaniaz edo frantsesez, bereziki goi-kulturatzat jo zitekeen edozer gauza.

Eta orduan Txillardegi agertu zen, eta argi eta garbi aldarrikatu zuen printzipio bat, ordura arte inoiz edo beste aipatzen zena, baina beti ahapeka eta etorkizun urrun batera proiektatuz; euskaraz egin behar dugu guztia, guzti-guztia, bereziki goi-kultura edo kultura urbanotzat jotzen dena. Den-dena euskaraz, eta den-dena oraintxe bertan hasita, partidaren lehen minutuan. Eta euskal kultura osorik iraultzea lortu zuen.

Hau ez da lekua xehetasunetan sartzeko, baina *facto* nagusia, egitatea, argi dago: Txillardegik markatzen du, beste inork baino gehiago, argi, garbi eta nabarmen, euskal kulturaren barruan ger-

«*Eta orduan Txillardegi agertu zen, eta argi eta garbi aldarrikatu zuen printzipio bat, ordura arte inoiz edo beste aipatzen zena, baina beti ahapeka eta etorkizun urrun batera proiektatuz; euskaraz egin behar dugu guztia, guzti-guztia, bereziki goi-kultura edo kultura urbanotzat jotzen dena*»

tatu zen bihurgune nagusia, hots, gure kulturaren definizioa erdaratik euskara pasatzea. Berarengatik ez balitz, aurreko inertziak segitu izan balu aldaketarik gabe, gaur egun euskal kulturatzat hartzen dugun gehiena gaztelaniaz edo frantsesez gauzatuko litzateke. Unibertsitatean eskola gehienak erdaraz izango lirатеke, euskararekin zuzenean lotutako atal txiki batzuk salbu, eta euskal literaturatzat nagusiki gaztelaniaz edo frantsesez egindakoa ulertuko litzateke, ameslari edo folklorezale zenbaiten ekina gorabehera. Bazterrekoak eta menpekoak. Ezaguna da, adibidez, Joxe Azurmendi edo Bernardo Atxaga gaztelaniaz idatziz hasi zirela beren lehen hasi-masietan; tira, ez da batere zentzugabea pentsatzea horrela segituko zutela, Barojaren eta Unamunoren lorratzean.

Txillardegiri zor diogu, beste inori baino gehiago, galtzen ari ginen partid iraultzea.

egia, leku guztietan abertzaleek beren hizkuntza propioa erreibindikatu dute, baina leku batzuetan modu lauso batean: etorkizunean helduko diote gai horri, zeren, orain, borroka politikoak dauka lehentasun osoa, eta oraingo borroka politikorako hizkuntza horrek traba besterik ez du egiten, ez da praktikoa, beraz, gero helduko diogu gaiari, borroka politikoa irabazi ondoren. Hori zen giro nagusia abertzaleen artean frankismo garaian, eta puntu horretan Txillardegi erradikala zen: osorik gaitzesten zuen.

Gaitzespen horretan, bi frontetan borrokatu behar izan zuen: eskuinetik, EAJko guardia zaharrarekin, ezkerretik, ETAko joera marxista-leninistekin. Kasu bietan garrantzitsua da azpimarratzea egoera inoiz ez dela izan zuri ala beltza: bai EAJn bai ETAn, era guztietako jendea zegoen, eta batzuk baino ez ziren euskararen marjinazioa argi eta garbi planteatzen zutenak. Baina gakoa, benetako

gakoa, honetan egon zen: Txillardegik irabazi zuen! Alegia, maila dialektikoan (berriz diogu, maila dialektikoan) argi eta garbi irabazi zuen, bai eskuinekoen kontra, bai ezkerrekoen kontra: Txillardegiren tesiak unibertsalizatu egin ziren abertzaleen eta euskaltzaleen artean, eta doktrina batean sinistea hura betetzea baino zailagoa baldin bada ere (hemen eta munduan), urte askoan ez zen inor ausartu argi eta garbi kontra egitera: abertzale guztiak euskaltzale deklaratuak bihurtu ziren, eta euskaltzale guztiak abertzale.

Ondorioz, milaka eta milaka lagun hasi ziren euskara ikasten edo berrikasten nagusitan, egundoko ahaleginak eginez, eta batzuek lortu zuten, eta euskaraz bizitzen hasi ziren... denok ezagutzen dugu horrelako jende miresgarria, ezta? Askok, benetan asko izan ziren. Baina beste asko bidean gelditu ziren (ez da erraza hizkuntza gutxitu bat ikastea), eta beste askok (gehienez)

beren umeak ikastolara igorrita bete zuten eginkizuna.

SOZIOLINGUISTIKAREN ORDUA ALA POLITIKARENA?

Bistan da teorizazio horrek ondo funtzionatu zuela frankismo garaian, eta baita ere erreforma politikoaren lehen urteetan: euskal gizartearen zati zabal-zabal batek mesfidantza handiz ikusten zuen Espainiako demokratizazioa eta, aldeaz edo moldez, ETaren borroka sostengatzen zuen, oso gradu eta modu desberdinetan bazen ere. Eta egoez horrek, nolabaiteko *impasse* horrek, iraun zuen bitartean, Txillardegiren logikak ondo funtzionatzen zuen: euskal herritarren gehiengo zabal bat antifrankista sentitzen zen ororen buru, bada, antifrankista izateko modu koherente bakarra da abertzale izatea, eta abertzale bazara euskaltzale izan behar duzu, eta euskaltzale bazara euskara ikasi eta hitz egin behar duzu... eta kate guztia oraindik betetzen

ez baduzu ere, gutxien-gutxienez antifrankista bazara, ontzat emango duzu beste guztia, betetzeko gai ez bazara ere: beteko duzu noizbait, zuk edo zure seme-alabek.

Denok dakigunez, Espainiako erreforma politikoa Euskal Herrian asentatu ahala, eskema horrek funtzionatzeari utzi zion, ez egun batetik bestera, baina bai bueltarik gabe. Ez gara xehetasunetan sartuko, garrantzitsuena orain azken emaitza delako: Soziolinguistikaren eta Politikaren arteko lotura hori guztiz apurtu da, eta gaur egungo gizartearentzat, gazteen-tzat bereziki, zentzugabea bihurtu da. Alegia, EAEn behintzat, gazte gehienek euskara eskolan ikasten dute, baina han inork ez die erakusten abertzale izaten, eta abertzale izan gabe zaila da euskaraz hitz egiteko arrazoirik aurkitzea. Hala daude gauzak.

Hitz batez, lehen Txillardegik arrazoi zuen, orain ez. Zer egin? Soziolinguistikaren ordua da. Ala Politikarena?